

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ETXABARRI IBIÑAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Administrazioarekiko 274/2016 auzi prozeduran agertzeko epatzea

Etxabarri Ibiñako Administrazio Batzarreko errejidore lehendakariak ebatzi du Gasteizko administrazioarekiko auzien 3. epaitegira bidaltzea espediente bat, zeinetan arrazoitzen baita Carmen Asteasu García Administrazio Batzar honen kontra jarritako errekurtoa, ustezko ezespena eman baitzitzaion lur publikoen jausi batek eragindako kalteen ondare erreklamazioari.

Iragarki honen bidez jakinarazten zaie balizko interesdunei eta, halaber, jakinarazten zaie 9 egun dituztela, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, aipatutako epaitegian agertzeko, beren legezko interesak aldezteko.

Etxabarri Ibiña, 2016ko urriaren 6a

Errejidore lehendakaria

LUIS MARIA GONZÁLEZ DE ZÁRATE ZUAZO